CAMARA DE GIPUZKOA
GIPUZKOAKO BAZKUNDEA

***Prentsa Oharra***

# Gipuzkoako Bazkundeak 100 enpresa baino gehiago elkartu ditu europako azpikontratazio industrialeko topaketan: Meetind

- *Europako Azpikontratazioko Industria Erosleen VII. Topaketa, hilaren 20an eta 21ean egingo da Gipuzkoako Bazkundean.*
- *300 bilera baino gehiago egingo dira Europatik etorrikotako 27 enpresa erosle eta bertako azpikontratazio industrialeko 95 enpresen artean, eskaintza eta eskaria bateratzeko asmoarekin.*
- *Aurten , lehenengo aldiz, siderurgia eta aeronautika sektoreetako enpresa marokoarrek parte hartuko dute.*

**Donostia - 2016ko Apirilaren 20a -** MEETIND azpikontratazioko industriaren topaketaren gunea da. Azpikontratazioak gure lurraldeko industriaren % 27,6 ordezkatzen du. Sektore honek gipuzkoako ekonomian duen garrantzia kontutan izan da, Gipuzkoako Bazkundeak zazpigarren urtez jarraian, MEETIND, Europako Azpikontratazioko Industria Erosleen Topaketa antolatu du.

Topaketa honen helburua, gure azpikontratazioko enpresen salmentak bultzatzea da, horniketa iturriak zabaltzeko interasa duten europako erosleak erakarriz. Aktibitate hau **Subcontex** programan barneratzen da, azpikontratazioko enpresen nazioartekotzea bultzatzen duen programa, enpresen susperraldia eta fakturazioa gehitzeko. Subcontex programa Gipuzkoako Foru Aldundiak sustatzen du.

Zazpigarren edizio honetan merkatu berrien identifikazioa Europa baina haratago iritsi da, topaketak Europako mugak gainditu ditu eta aurten, estrainekoz, siderurgia eta aeronautika sektoreetako enpresa marokoarrek parte hartuko dute.

**300 bilera baino gehiago**

Topaketa bi egunetan banatuko da. Lehenengo egunean, apirilaren 20an, 100 enpresa baino gehiago, erosleak eta azpikontratazioak, elkartuko dira Gipuzkoako Bazkundean. 30 minutu iraungo duten 300 bilera baino gehiago antolatu dira.

Bigarren egunean, apirilaren 21ean, erosleek gure lurraldeko 60 enpresa bisitatuko dituzte. Bisita hauen helburua eskaeren kontratazioa sustatzea da, erosle europarrei gure enpresen ahalmenak eta kalitatea ezaguztaraziz.

**Erosleak eta Azpikontratzaileak**

Topaketa honetara etorriko diren 27 erosleak Frantzia, Suedia eta Marokokoak (aurten lehenengo aldiz) izango dira. Hiru miloi eurotatik 1.700 miloi arte fakturatu dezaketen enpresak dira eta honako sektoreetakoak dira: makina erreminta, aeronautika, energetikoa, ekipo elektrikoak, ekipo ondasunak, nekazaritzako elikagaiak, trenbidekoak, kimikakoa eta siderurgiakoak.

Azpikontratraziokoei dagokionez, 95 enpresek parte hartuko dute. Enpresa hauen aktibitateak ondorengo hauetan laburbiltzen dira: galdaketa (burdinezkoa eta burdinezkoa ez dena) txiribil-harroketakin edo gabeko transformazioa (galdaragintza, mekanizatua, estanpazioa, enbutizio, laser bidezko mozketa etb.), plastikoa, kautxua eta taldeen fabrikazioa.

Topaketa honi esker erosleek eta azpikontratatzaileek onurak lortzen dituzte. Erosleak, alde batetik, bilaketa pertsonalizatu baten onura lortzen du eta berak onartutako enpresekin biltzen da. Bere produktibitatea hobetzen du, egun bakar batean hornitzaileak izan daitezkeen 17 enpresekin elkartzen delako. Azpikontratatzaileak bestalde, bere enpresentzako nazioarteko bezeroak izan daitezkenak identifikatzea lortzen du. Era berean, egun bakar batean, enpresa hauetako erosketa arduradunakin elkarrizketatzeko aukera du eta horrela profesional hauek euren enpresetara erakartzeko aukera dute.

*Informazio gehiago nahi izanez gero:*
Irune Bengoetxea
**ibengoetxea@camaragipuzkoa.com**
943 000 310 / 688884347